

HAU GURA DUZU?

Materiala: Begiak estaltzeko zapia.

Jokatzeko era:

Zirkuluan eserita, jokalaria bati begiak estaliko zaizkio. Ondoren gidariak, **hau gura duzu?** galdetuko dio; zaplastakoa, ukabilkada, musu, ostikada, atximurka, fereka, koska... hotsak egiten dituen bitartean, begiak estalita dituenak baietza eman arte. Orduan, bigarren galdera egingo dio: **hemen ematea gura duzu**, gorputz atal bat seinalatuz: ipurdia, ezpainak, besoa, belarria, hanka, begia... ITSUAK baietz erantzun arte. Ondoren, hirugarren galdera egingo dio: **honek ematea gura duzu**, klaseko jendea seinalatzen duen bitartean, bat aukeratu arte. Aukeratutako pertsona nor den asmatzen badu, ez diote ezer egingo. Nor den asmatzen ez badu, ordea, ikasle horrek (aukeratuak), hautatutako gorputz atalean, lehen galdera egitean onartutako ekintza burutuko du.

